

Portugaleten ardiak lorezain



KIMETZ ARANA BUTROE
BARATZEZAINA

Portugaletera bazoazte, autobidea utzi eta hiriko sarrerako bi erreiko bide bazterrean 40 ardiko artalde ikusiko duzue agian. Makilarekin zaindari dute alboan artzaina, iluntzetan itxituren sartu eta egunez pisu-lantegi arteko zelaietan bazkatzen du artaldea. Bere izena izan liteke Abdu, Babacar edo Demba, eta ikusten dudari aldiro imajinatzen dut belardiz belardi mugitzen diren Afrikako abeltzain familien antzera ari dela hemen ere.

Euskal Herrian ere herri lurren erabilerarekin lotua da artzaintza, urtaroen arabera belar puntaren bila mendiko larreetara edo ibarreko zelaietara, gorra-behera mugitzen baitira artzainak. Portugaleten eta Sestaon, ordea, lurrez txiki eta azalera ia guztia etxe, industria edo kalez eraikia denez, haiek dira Bizkaiko abelburu erroldan ardi eta behi gutxien dituzten herriak. Horregatik da deigarria hiri bazterreko bide handien inguruan artzaina eta ardiak ikustea.

Gure inguruan zabalduena den lorezaintza eredu hiru elementu bereizten dira: belardiak, lore guneak eta zuhaixka-arbolak. Eredu horrek goresen duen belardia *green* estiloko zelaia

**Lorezaintza
jasangarrian tokia izan
dezake gune batzuetan
belardien mantenu
eta ongarriketarako
abereak erabili eta hiri
barruan janaria ekoiztu
ahal izateak**

da, belar motza, espezie gutxi batzuk nagusi direna (dibertsitate gutxi), mozketak mantenu handia (udaberrian hamabost egunero pasaldi bat) eta lehortegaraian ureztaketa behar duena. Beraz, lorezaintza mota horrek lan, erregai eta ur kontsumo handiak behar ditu mantendu ahal izateko.

Agintariak aldaketa klimatikoaz bolar-bolar ari direla, hirietako erdigunera kotxeen sarrera debekatu dute. Beharrezkoa da, ordea, haratago joatea; erakundeek haien jarduna aztertu eta hiri

bizigarriagoetarako arloz arloko eraldaketak neurriak planteatzea.

Berebiziko garrantzia du lorezaintza eta espazio berdeen kudeaketa jasangarriagoa sortzeak: sasoiko lore gutxiago eta landare iraunkor gehiago dituen, asfalto bazterreko belarra hiltzeko pozirik gabe, espezie askotako belardiak, kaleen zabalerara egokitutako zuhaitzak, ahal dela inausketa murriztuko duena eta ur gutxiagorekin arituko dena.

Lorezaintza jasangarri horretan tokia izan dezake gune batzuetan belardien mantenu eta ongarriketarako abereak erabili eta hiri barruan janaria ekoiztu ahal izateak.


Ze onura lekarkiguke halako neurriak martxan jartzeak? Lorezaintzaren karbono lorratzean, herritarren naturarekiko hurbilpenean, tenperaturaren kudeaketan, espazio berdeen erabilerran, hurbileko ekonomian edo elikadura hurbilago eta hobearren ezagutzan? Hor, ikertu eta erantzun beharreko galderak.

Autobideko artzainarengandik hiri erdiko lorategira besarkada bat, eta animo Gasteizen greba luzean ari zareten lorezainei, hiri bizigarrietarako garrantzitsuak, beharrezkoak, zarete. ●

ERRALDOIEN IPUINAK




12 €



12 €

Bi liburuak
batera erosita
22 €

HEZKUNTZAZ GOGOETAK



14 €



16 €

Bi liburuak
batera erosita
28 €